

eman ta zabal zazu




Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Euskara eta Literatura II EAU 2019

www.ehu.es





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2019ko UZTAILA

EUSKARA ETA
LITERATURA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

JULIO 2019

LENGUA VASCA Y
LITERATURA

Azterketa honek bi aukera ditu. Horietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

- Lehenbizi TESTU bat duzu.
- Testu bakar horren gainean eraikiak daude bi aukerak: A eta B. Bietako bat egin behar duzu.
- Aukera bakoitzak hiru atal ditu:
 - Irakurmena
 - Ulermenari buruzko galderak (2 puntu)
 - Gaia eta ideiak/laburpena (2 puntu)
 - Hizkuntzaren eta literaturaren inguruan (1 puntu)
 - Idazlana (5 puntu)



**EUSKARA ETA
LITERATURA**

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA**

Ba al dago azkar argaltzeko miraria egiten duen dietarik?

Mirari-dietei buruz hitz egiten dugunean, ia esfortzurik eskatzen ez duten horietaz ari gara; gehienetan, edozein modutan argaltzeko helburua duten horietaz, hain zuzen ere. Horrelako dietek ez dituzte elikadura-ohiturak kontuan hartzen, ezta ohitura osasungarriak ere. Gainera, oinarri zientifikorik ere ez dute izaten. Epe luzera begira ere, koipe masaren jaitsieran eragin onuragarririk ez dute izaten, ezta osasunean ere. Epe luzera begira, gainera, mantentzeko zailak izaten dira, eta galdutako pisua berreskuratzeko denbora gutxi behar izaten da. Horretaz gain, zenbait dieta osasunerako kaltegarriak izan daitezke, gehitzen edo kentzen diren elikagaien arabera.

Azken finean, osasuna galdu gabe argaltzea da gakoa, eta hori lortzeko, ez dago miraririk: gehiegizko pisu hori edukitzea eragiten duten bizi-ohiturak aldatzean dago oinarria. Hala ere, argaltzeko erabakia hartu aurretik, osasun arloko profesional batengana jotzea da egokiena, bera izango baita pisua galdu behar dugun ala ez esango diguna, eta, baiezkotan, era osasungarri batean nola egin behar dugun azalduko diguna. Izan ere, gizentasunaren edo gehiegizko pisuaren atzean, estetika kontu bat baino gehiago, osasun-arazo bat dago.

Profesional horiengana ez joatea eta mirari-dietak egitea dira, beraz, gizakiak argaltzeko prozesuan egiten dituen akatsetako batzuk. Baina, horietaz gain, jatorduak kentzea eta zenbait elikagai elikaduratik kentzea dira hartu behar ez diren beste ohitura batzuk.

Bestalde, osasun-arloko profesionalak aurkakoa esaten ez duten bitartean, elikadura-osagarriak ez dira ez beharrezkoak ez onuragarriak dieta on baten oinarrian.

Dieta mediterranea legoke, azken finean, dieta on baten oinarrian. Alegia, barazkietan eta animalietatik eratorritako elikagaien neurrizko kantitateetan aberatsa dena, eta, horrekin batera, beharrezkoak ez diren produktuak baztertzen dituen (aurretiaz prestatutako jakiak, opilak, gozokiak...). Betiere, askotariko dieta bat egitea gomendatuko nuke, inolaz ere aspergarria izan ez dadin, eta, horrela, jateaz gozatzen jarraitzeko.

Gure beharizanei egokitutako dieta orekatuaren ondorioz egongo gara osasuntsu. Jateko ohiturek osasunarekiko lotura estua dute, eta hainbat gaixotasun prebenitzeko balio dute. Hori dela eta, gure jateko eta bizitzeko modua bizitza osasungarri bati begira egon beharko litzateke. Dena den, eta zoritxarrez, pertsona askoren helburua edozein modutan pisua galtzea izaten da, nahiz eta modu hori ez den ez osasungarria ez eta denboran iraunkorra ere.

Guztiok uste dugu era egokian elikatzen garela, eta badakigula osasuntsu egoteko zer jan behar dugun. Hala ere, gaur egun elikatzeko dugun era ez da egokiena. Gure inguruan, esaterako, gehiegizko pisua eta gizentasun-maila altua dago, bai eta hainbat osasun-arazo ere; horiek guztiak jateko ohitura txarretatik datoz.

Osasunerako onak diren jateko ohiturei heltzeko, beharrezkoa da mirari-dietetatik ihes egitea. Bide horretan, bidelagun izango dugu dietista nutrizionista. Pisua galtzen eta gure osasuna eta bizi-kalitatea hobetzen lagunduko digu.

Laura Gonzalez
Administrazioa euskaraz aldizkaria (HAEE-IVAP)
(moldatua)



**EUSKARA ETA
LITERATURA**

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA**

A AUKERA

A.1.- IRAKURMENA

A.1.1. ULERMENA (2 puntu)

Aukeratu erantzun egokiena. Aski duzu erantzun-orrian zenbakia eta letra jartzea: 1.a, 2.d,...

1. Testuak dioenaren arabera,...

- a) mirari-dietak osasungarriak dira.
- b) mirari-dietek esfortzu handia eskatzen dute.
- c) mirari-dietak ikerketa zientifikoetan oinarrituak egon ohi dira.
- d) mirari-dieten helburu nagusia edozein modutan argaltzea da.

2. Dieta egoki baten helburua honako hau da:

- a) Barazkiak bakarrik jatea.
- b) Edozein modutan argaltzea.
- c) Osasuna galdu gabe argaltzea.
- d) Gehiegizko pisua luzaroan mantentzea.

3. Testuaren arabera, ohitura ona da...

- a) elikadura-osagarriak hartzea.
- b) aurretiaz prestaturiko jakiak baztertzea.
- c) osasun arloko profesional batengana ez joatea.
- d) estetikari gehiago erreparatzea osasunari baino.

4. Idazleak honako hau gomendatzen du:

- a) Askotariko dieta bat egitea.
- b) Dieta mediterranea ez egitea.
- c) Egunero dieta aspergarri bat egitea.
- d) Animalietatik eratorritako elikagaiei lehentasuna ematea.

5. Testuaren arabera,...

- a) jateko ohitura txarrek ez dute eraginik osasunean.
- b) gaur egun elikatzeko dugun modua osasungarria da.
- c) gaur egun elikatzeko dugun modua ez da osasungarriena.
- d) gaur egungo gizartean dugun gizentasun-maila nahiko baxua da.



**EUSKARA ETA
LITERATURA**

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA**

A.1.2. GAIA ETA IDEIAK (2 puntu)

GAIA: Aukeratu ezazu gai egokiena honako aukera hauen artean (0,5 puntu):

- Dieta osasungarria da aurretiaz prestaturiko jakiek, opilek eta gozokiek osatzen dutena.
- Mirari-dietak pisua galtzeko gaur egun merkatuan dauden dieta osasungarriak dira.
- Osasun-arloko profesionalentzat dieta on batean ezinbestekoak dira elikadura-osagarriak.
- Osasun-arloko profesionalak dietak gainbegiratu behar dituzte osasunean duten eragina kontuan harturik.

IDEIAK (1,5 puntu)

Azaldu, era eskematikoan, testuan agertzen diren ideia nagusiak eta bigarren mailakoak.

A.2.- HIZKUNTZAREN ETA LITERATURAREN INGURUAN (1 puntu)

AURKITU ITZAZU TESTUAN DEFINIZIO HAUEI DAGOZKIEN HITZAK

- Pertsona batek jan ohi dituen elikagaien multzoa, osasun-neurri moduan.
- Lodia denaren nolakotasuna edo ezaugarria.
- Baratzean giza elikadurarako hazten den landarea.
- Osasun-egoeraren hondatzea.
- Norbaiti bidean laguntzen diona.

A.3.- IDAZLANA (gutxienez, 200 hitz) (5 puntu)

ESKUTITZA:

Osasuntsu egoteko, janariaz aparte kirola egitea ere garrantzitsua dela iruditzen zaizu. Baduzu lagun bat kirolik egiten ez duena. Idatz iezaiozu gutun bat zure lagun horri, zuk praktikatzen duzun kirol horretan izena eman dezan animatzeko, kirol hori (edo zure lagunari gustatzen zaion beste kirolen bat) praktikatzeak dituen alde onak azpimarratuz.



**EUSKARA ETA
LITERATURA**

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA**

B AUKERA

B.1.- IRAKURMENA

B.1.1. ULERMENA (2 puntu)

Erantzun galdera hauei:

1. Testuaren arabera, zein dira mirari-dietek aintzat hartzen ez dituzten kontuak?
2. Zein da dieta on baten oinarria? Zertan datza dieta mediterranea?
3. Zer egin beharko litzateke argaltzeko erabakia hartu aurretik?
4. Zertan datza dieta orekatu bat? Zeri begira egon behar luke?
5. Testuaren arabera, zer egin behar da gure osasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko?

B.1.2. GAIA ETA LABURPENA (2 puntu)

GAIA: Aukeratu ezazu gai egokiena honako aukera hauen artean (0,5 puntu):

- a) Dieta osasungarria da aurretiaz prestaturiko jakiek, opilek eta gozokiek osatzen dutena.
- b) Mirari-dietak pisua galtzeko gaur egun merkatuan dauden dieta osasungarriak dira.
- c) Osasun-arloko profesionalentzat dieta on batean ezinbestekoak dira elikadura-osagarriak.
- d) Osasun-arloko profesionalak dietak gainbegiratu behar dituzte osasunean duten eragina kontuan harturik.

LABURPENA: Egin ezazu testuaren laburpena. (gehienez, 5-7 lerro) (1,5 puntu)

B.2.- HIZKUNTZAREN ETA LITERATURAREN INGURUAN (1 puntu)

Azaldu ezazu, zeure hitzekin, honako hitz-kate hauen esanahia:

1. ...osasuna galdu gabe argaltzea da gako...
2. ...bizi-ohiturak aldatzean dago oinarria...
3. ...gizentasunaren atzean, estetika kontu bat baino gehiago, osasun-arazo bat dago...
4. ...askotariko dieta bat egitea gomendatuko nuke...

B.3.- IDAZLANA (gutxienez, 200 hitz) (5 puntu)

IRITZI-ARTIKULUA: Adituek diotenez, gure inguruan gizentasun-maila altua dago; badira horrek sortutako hainbat osasun-arazo ere. Egoerarekin kezkatutik, ikastetxeko aldizkarian argitaratzeko iritzi-artikulu bat idaztea bururatu zaizu, bizitza osasungarri bat bultzatzeko proposamen batzuk egiteko.

Nahi izanez gero, honako puntu hauek jorra ditzakezu:

- Kirola egitearen garrantzia.
- Jaten eta edaten duguna zaintzea.
- Burua aktibatua edukitzea.
- Familiaren garrantzia.
- Lagunarte osasungarri bat izatea.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

EUSKARA ETA LITERATURA / LENGUA VASCA Y LITERATURA

A1/B1 IRAKURMENA (4 puntu guztira)

Bi ariketa mota daude, **ULERMENA (2 puntu)** eta **GAIA ETA LABURPENA (2 puntu)**.

ULERMENA:

Ariketa hauen helburua idatzizko ulermena neurtzea da. Beraz, ariketa itxia bada, hau da, aukera anitzeko galderak edota egia/gezurra erakoak kasu, erantzun zuzenak emango zaizkio zuzentzaileari, zuzendu ahal izateko. Erantzun okerrengatik ez da zigorrik izango.

Galde-erantzun erako ariketetan, ematen den erantzuna testuaren beraren kopiatze hutsa denean, galdetzen denari erreparatu gabe, zigortu egingo da.

Zuzentasunari dagokionez, ikasleak tarteka sistematikoak ez diren akats ortografiko txiki batzuk edo eta gaizki ulertuak sortzen ez dituzten akats gramatikalak egitea ez da zigortuko.

GAIA ETA LABURPENA

Gaia: lauzpabost esaldi aurkeztuko zaizkio ikasleari, horien artean aukeratu dezan bere iritziz testuko gaia laburbiltzen duena. **(Guztira 0,5).**

Laburpena / Ideia nagusiak: Laburpenean, ikasleak sintetizatzeko duen gaitasuna neurtuko da. Ikasleak sortzen duen testuak "josia" behar du. Testuaren laburpena egitean estilo zuzena eta zehar estiloa, guztiak onartuko dira. Beraz, ez da txartzat emango "autoreak dio" edo "idazleak dio" eta horien antzeko egiturak erabiltzea.

"Lehenengo amaren egoera azaltzen du Arantza San Sebastianek, ahaztu duen guztia, gogoratzen ez duen guztia eta iraganaren eta etorkizunaren arteko une horretan geratu dela ama. Gero ulergaitz agertzen da bere amaren egoeraren aurrean eta gaixotasunari uko egiten dio. Azkenik eguneroko bizitzeko bera amaren egoera bat azaltzen du eta amaren harridura amaigabeaz mintzo da, nahiz eta batzuetan oroimenak itzuli egiten zaizkion txiripaz bezala, bat batean." (1'5 kalifikazioa izan zuen)

"Gustu musikalaren formazioak norberaren musika zein den irakasten du eta hau erabakigarria da pertsona batek gustoko eta gorroto dituen musika motak ezagutzeko" (0,75 kalifikazioa)

Ideia nagusiak zein diren esateko orduan, berriz, testuan agertzen diren jarrera, ikuspegi edo argudio-ildo garrantzitsuenak antzemateko gai den neurtuko da. Ideiok ez dira bata besteari lotu behar eta eskema baten modura aurkeztuko dira. Egiturari dagokionez, ontzat emango da bai izen-sintagma egitura erabiltzea eta bai perpaus-egitura erabiltzea ere.

- 1) Michael Jackson aitortu arren, jende gutxi batzuk bakarrik entzuten dute bere musika
- 2) Patxi Huarte eta Koldo Aldabe ez dute bere musika gertutik jarraitu
- 3) Michael Jacksonen musika entzutea debekatu diote
- 4) Queen, Elton John... entzutea ere debekatu diote
- 5) Hauek ez ditu entzun beste giro batean hasi zelako musika entzuten
- 6) Berari gustatzen zaiona Tequila du izena



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

(1 kalifikazioa eman zion zuzentzaileak. Ergatiboak eta gainerako akatsak gorabehera, ontzat ematekoak dira ideia nagusiak emateko erabili dituen egiturak)

*“-ideologia aurrerakoiarekin konprometitua agertu da beti Mercedes Sosaren musika
-militarrei ez zitzairen oharkabea pasa eta erregimenak iraun zuen artean debekatuak izan ziren “La Negra”-ren diskoak
-La Plata hirian kontzertua ematen ari zela militarrek kantaria bera eta publiko guztia atxilotu zuten arte
-Pariserara joan zen bizi lehenengo, Madrilera hondoren eta diktadura amaitu aurretik, Argentinara itzuli zen”*

(0,7 lehen zuzentzaileak, 0,75 bigarrenak)

*“-Mercedes Sosaren heriotzaren berri ematea
-entzule asko izan zituela adieraztea”*

(Zuzentzaileak ez zion puntu bakar bat ere eman)

Hitz batean, forma kontuez haratago, testua ulertu duten antzematea da helburua. Horrexegatik, *Laburpenean* eta *Idea nagusiak* adieraztean ere, ez da zigortuko zuzentasunari eta ortografiari dagokienez, ikasleak tarteka sistematikoak ez diren akats txiki batzuk edo eta gaizki ulertuak sortzeko modukoak ez diren akatsak egitea.

(1,5 guztira).

Laburpenean eta *Idea nagusiak* adieraztean ere, zuzentasunari eta ortografiari dagokienez, ikasleak tarteka sistematikoak ez diren akats txiki batzuk edo eta gaizki ulertuak sortzeko modukoak ez diren akatsak egitea ez da zigortuko.

A2/B2 HIZKUNTZA ETA LITERATURAREN INGURUAN (1 puntu guztira)

Zuzenak diren erantzunak baino ez dira kontuan hartuko.

Atal honetan ere, aurreko ataletan bezala, ortografia edo gramatika hutsei dagokienez irizpide berberak balio dute. Hala ere, eginkizun den ariketaren funtsari dagokion egituran ez da ontzat emango inolako hutsik. Esaterako, ariketa batean perpaus erlatibo bat sortu behar bada, nekez emango da *-(e)na*-ren ordez, *-(e)a* bat.

A3/B3 IDAZLANA (5 puntu guztira)

Idazlanaren kalifikaziorako kontuan hartuko da ea eskatutakoari zuzen eta egoki erantzun zaion, beharrezko informazioa aukeratu duen, era logikoan ordenatu eta lotu duen, eta hizkuntza baliabide aberatsak, askotarikoak, zehatzak eta zuzenak erabili dituen.

Idazlana garatzeko gidoia ematen denean, gogoan izan behar da gidoiko puntuek lagungarri izan nahi dute ikaslea adarretatik ibil ez dadin eta gaiari hel diezaion. Baina ez da nahitaezkoa puntu guztiak garatzea.

Eskaera-gutunetan edo beste edozein motatako gutunetan ez da eskatuko horrelako idatziek izan ohi duten egitura formala (eskatzailearen izena, NA zenbakia, “adierazten du”,



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

“eskatzen du”... moduko egitura, alegia). Formari dagokionez, nahikoa da modu zabalagoan adieraztea zein den eskaria, kexua, edo dena delakoa.

Zuzentzeko erabiliko diren irizpideak eta maila bakoitzari dagozkion adibideak: (adibide pare bat maila bakoitzeko, bat tarte bakoitzeko nota altuenetik gertu dagoena; bestea, tarteko nota baxuenetik gertuago dagoena)

4-5 puntu: (8-10)

- ✓ Testua, eskaturikoari lotzen zaio eta ondo antolaturik dago.
- ✓ Erabiltzen diren ideiak eta argudioak ongi loturik eta garaturik daude.
- ✓ Aukeratu den edukia esanguratsua da gaiaren garapenerako.
- ✓ Erregistro egokia erabiltzen da eta lokailu, lexiko eta egitura sintaktiko aberatsak erabiltzen ditu.
- ✓ Ortografia eta puntuazioa zuzenak dira

“XV. mendean Guttenberg-ek inprenta asmatzeak mesede itzela egin zion garaiko kulturari. Garai hartako idazleak ez ziren negarrez hasi haien lanak mundutik barreiatzean; ordea, izugarri poztu ziren haien ospea eta ohorea handituko baitziren. SGAE handik egotekotan Inkisidoreen antzera arituko zen inprenta ilegalen bila, kononen bat kobratzeko edo!. Internetek kultura goitik behera aldatu du. Lehen soilik idazleek idazten zuten, aktoreek filmak egin, argazkilariek argazkiak egin...Gaur egun jarduera horiek demokratizatu egin dira. Blogger, Youtube, Flickr... bezalako webguneei esker edonor bilakatu daiteke artista edonoiz, horretarako trebezia izanik, eta, oraindik hobea dena, munduko edonork ikusi eta baloratu ahal du nahi izanez gero. Artista bat baino gehiagok jadanik Interneten ikusiak eta kontratatuak izan dira, ospea lortuz. Kulturaren bultzatzaile hauek dohain egiten dute lan. Ez dute nahi dirutzarik, soilik kulturaz gozatzea eta besteak gozaraztea. Ez da hori SGAE-ren ikuspuntua. Haiei emule-eren bidez kultura hedatzea bost axola. Haiek helburua dirua bereganatzea da, haien patrikak aski betetzea. SGAE guztiz oker dabil planteamendu hori defendatzean. Beharbada disken salmentatik datorren kapitala, baina abeslarien ospea? Esponentzialki hazten da Interneteko mandoari esker. Ospea eta kulturarekiko axolagabekeria aski erakutsi dute, ondorioz haien hizkuntzara itzuliko dut baieztapen hau, euroetara: Abeslari bat jende gehiagok ezagututa eta benetan ona baldin bada, zenbat dirutza lortuko da kontzertu, telebista, emanaldi edota horrelako jardueran bidez? Arazoa izan daiteke beharbada hain onak ez izatea eta horretaz gu konturatzea nahi ez izatea... Beraz, SGAE-ko lagunok, ez bota ‘so’-rik mandotxoari hark bultzatuko baitu kultura eta artista onak eta diruzaleak bereiziko baititu”

“Kaixo, Natalia

Zelan doa bizitza? Asteak dira hitz egiten ez dugula, potxola! Azterketak gora eta azterketak behera. Baina, beno, laster bukatuko da dena! Bai, badakit oso arraroa dela nik ordenagailua hain goiz hartzea. Berri txarrak ditut. Oso berri txarrak, tamalez. Aitite gaixorik zebilen, badakizu. Auto istripua izan zuenetik ez du burua altxatu, gizajoa! Hori lehenengo, gero amamarena... Nekez jarraitzen zion egunerokoari, goizero altxatu beharrari, familia eta lagunak irribarre eta ‘ondo nagoela, motel!’ batez lasaitzeari. Eta gainera artritisiari eta adineko guztien gaitzei aurre egin behar. Gizon indartsua da aitite.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

Baina, antza denez, ez guk uste bezain indartsu. Dirudienez, ezin izan du jarraitu eta burmuinak ondo erantzuteari utzi dio. Sendagilearenean egon gara goizean eta aititeri Alzheimerra diagnostikatu diote. Are gehiago, denborak aurrera joan ahala, okerrera doan gaixotasunaren aldaeretako bat. Aitonak ez du egoeraren larritasuna ulertu, baina amari mundua gainera erori zaio. Negarretan deitu dit telefonoz. Emakume indartsua ere bada ama.

Aditzean genuen aitona ez zegoela erabat ondo, zenbait gauza ahazten zituela eta orduak eta orduak eman ahal zituela lasai eta isilik. Normaltzat hartu genuen, dagoeneko zahartxoak bait, eta guk gauzak ahazten bagenituen, zergatik berak ez? Baina gero izenak nahasten hasi zitzaizkigun, non zegoen edo nora joan behar zuen ahazten... Sendagileak tratamendua bidali dio eta hobe daitekeela esan, baina hori momentu puntualen gauza izan daitekeela ere bai.

Ez dakit zer egin, potxola! Aitonak ahazten banau, zer egingo dut? Badakizu zenbat maite dudan aitona eta ze neurritan elkarrekin gauden. Erantzun goiz, behar zaitut.

*Musu bat,
Rocio*

3-4 puntu: (6-8)

- ✓ Testuak ez du ia akatsik; izatekotan, oso akats txikiak dira, inola ere ez sistemakoak.
- ✓ Erabiltzen diren ideiak eta argudioak bata besteari loturik eta garaturik daude.
- ✓ Egitura sinpleen ondoan aberatsagoak ere erabiltzen ditu (lokailuak, menderagailuak, etab.).
- ✓ Erregistro egokia erabiltzen da.
- ✓ Ortografia ondo menderatzen da, oro har, tarteka akatsen bat edo beste egin arren

Michael Jackson, denok dakigun bezela, mundu honetan izan dugun abeslari eta dantzari trebea izan da. Nahiz eta ez izan gure kultura berdinekoa eta bere abestiak ulergaitzak izan, Michael Jacksonen musika soinuak gaitasun handia du, guztiok dantzan jartzeko bere musikarekin.

Michael Jackson gaur egun, Elvis Presleik duela urte batzuk izan zuen garrantzi berbera du. Biak izan dira historialaren jaun eta jabe, biak sortutako musikak edo soinuak, bizitasuna eman die gure bizitza sumeei, alaitasun puntu bat eskainiz.

Gizon honek, hots Michael Jacksonek nahiz eta bere bizitza pertsonalean huts egite asko izan (droga kontuetan, bortxaketetan...) musika arloan oso kategori handiko gizona izan da eta bere heriotzak, gure oroimenean hutsi ditu bere abestiak, esate baterako: smouth, criminal.

Baina Michael Jackson ez zen soilik bere abestiengaitik egin ospetzu, baizik eta bere dantzatzeko moduengaitik. Beste abeslari guztiakin alderatuta, honek, bizitasuna ematen zion, bere doinueri, ohol gainean edo antzoki batean, izugarriko erakustaldiak eginez dantzan. Sale asko lortzen zituen. Kultura guztietako saleak zituen eta gaur egun horrelako gutxi daude, kultura desberdineko saleak edo jarraitzaileak dituenak. Eta talde horiek ere gure historiaren parte izatera pasatu dira. Baina gizon honek miloika eta miloika sale izan ditu beti eta bere heriotza oraindik ez bazen gertatuko sale gehiago izango zituen. Baina denok jakin dugu, Michael Jacksonek azaleko arazoak izan zituela eta egindako operazio guztien ondorioz, bere gaitasuna txarrera joango zela. Nahiz eta orain bera ez egon, bere sale guztiok oroimenean izango dugu. Zeren eta bere musika doinuak gure bizitzan hutsune handi bat bete bait du.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

“Kaixo aitite maitea,

Atzo amak zure gaixotasunaren berri eman zidan, begiak malkoz bustita zeuzkala. Medikiak alzheimerra zenuela esan zizun eta horrekin beharbada zure bizitzaren ikuspuntua bat batean aldatu egin zen.

Egia da bai, duela gutxi zenbait arazo izaten hasi zarela iloben izenak gogoratzeko edo giltzak non utzi dituzun jakiteko. Baina guk ez genuen ezer ikusten edo ez genuen ezer ikusi nahi.

Txikitatik gurasoek zaindu ezin nindutenean zuregana eramaten ninduten jan, lo edo jolastera. Baita igandero gure bidai pribatuetan inguruneke zonaldeak esagutzera eramaten ninduzun. Bertan zure gaztaroko istoriotxoak, lagunak eta baita zenbait neska lagunak inguruan hitz egiten zenidan. Zekulako gertaerak ziren. Nik gogokoen ditudana amama esagutu zenuenarena da. Biok hain gazte eta osasuntzu imaginatzen zaituzten etorkizunean zer pasatuko den jakin barik.

Orain egoera antzekoa da baina zerbait gehitu behar diogu, iragana ere ez duzula jakingo. Hala ere, zuk nire izena jakin ezean, hamar aldiz errepikatuko dizut, etxean bainugela non dagoen ez jakitean, haraino eramango zaitut, bizitza osoa emandako hiritik paseatzean kaleak ezagutzen ez badituzu, nik azaldu egingo dizkizut.

Izan ere, zuk behin nirekin egin zenuen, zenekin guztia edo gehiago erakutsi zenidan, bizitzaren dinamika azaldu zenidan eta ahulak lagundu behar direla ere irakatsi zenidan. Hori dela eta, zu ez zaitut alde batera utziko. Badakit gauzak gogorak izango direla, gaixotasun bat ez da txantxa. Badakit noizbehinka ez duzula ezta ideiarik izango nik nor naizen.

Kontran, arrazoi guzti horiek dira indartsuago egiten nautenak. Nahiz eta nik zure iloba izateari utzi, zuk beti nire aitona izango zara. Haur bat nintzela bizitza erakutsi zidana eta bizitzak berak batzuetan gauza onak eta gauza txarrak ditut. Nire proposamena gaixotasun hau gauza on bat bilakatzea lortzea da.

Horregatik inoiz baino indar handiagoa dut nik zuri behin irakatsi zenidana kontatzeko. Azken finean, gaixotasuna izanda edo ez beti maite egingo zaitut eta pertsona berdina izango zara. Zuk aldatzeagaitik ez gara guk aldatuko, aitzitik, lagundu egingo zaitugu bizitza ezin hobea izan dezazun zuk guri eskaini diguzun bezala.

Besarkada handi bat,

Zure iloba kutuna

2'5-3 puntu:

- ✓ Idatziak zenbait akats ez sistematiko du edukian edo forman. Gabeziek, nolahi ere, ez dute oztopatzen testua ulertzea.
- ✓ Egitura sinpleak erabiltzen ditu orokorrean.
- ✓ Argudioak edo ideiak urriak dira edo ez daude guztiz garatuak edo errepikatu egiten dira.
- ✓ Ideien eta egituren arteko koherentzia eta kohesio arazoak baditu ere, hauek ez dute ulergarritasuna oztopatzen.
- ✓ Ortografia eta puntuazioan akats txikiak ditu.

Idazten hasi egin behar naizen artikulua Michael Jackson-ri zuzendua dijo. Atzo arratsaldean musika eskolan nenbilela, irakasle bat etorri zitzaigun esanez Michael Jacksonen heriotzaz, guk ez genuen sinisten orduan etxera iritsi nintzenean eta telebista



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

piztu nuenean, neska bat azaltzen zen bere etxearen aurrean esanez Michael Jacksonek hil egin zela. Notizia hori entzun eta gero, nire sabelatik tximeleta batzuk bezela sentitu nituen eta ain urduri nengoen ordenagailua piztu eta informazioa aurkitzen hasi nintzen, zeren artista hau txikitatik entzun dut eta gustokoa nuen.

Michael Jacksonen musika oso dibertigarria da, baina ez bakarrik hori, baizik eta mota guztietako abestik abesten zituen. Abestien letrak oso politak ziren, ulertu ezker. Idazten zituen abestik signifikatu bat zuten beti, bere bizitza kontatzen zuen abesti horietan, eta esan beharra dago bere bizitza oso zaila izan dela.

Artista honen bizitza oso zaila izan da, batez ere bere aitak derrigortzen ziolako bera eta bere anahiei abestea eta dantzatzea, gero diru horrekin bizi ahal izateko pobreak zirelako. Danak batera abesten zuten eta ondo ateratzeko hainbat ensaio egiten zituzten, baina ensaio horietan oso gaizki pasatzen zuten zeren zer bait gaizki atera ezker bere aitak jo egiten zien.

Urte batzuk pasa zirenean, Michael Jacksonek aukeratu zuen azal txurikoa izan nahi zuela eta bere aldetik hasi zenez abesten eta jendea maitatzen zuenez kontzertuk egiten hasi zen, orduan diru horrekin, bere operazioa ordaindu zuen.

Michael Jacksonek oso abeslari ona izan da, eta Estatu Batuetan gehienbat jendea asko maite zuen, hemen ere baina han askoz gehiago. Abesti onak izan arren, oso dantzari ona zen eta bere pausoak gaur egun jende askok eta askok egiten dute. Bera hil egon arren, oraindik jendea asko maite du eta inoiz ez dute ahaztuko artista on bat izan dalako eta jendea asko maite duelako.

2011ko uztailaren 7a
Alkatea
Padres Paulinos Kalea
Bizkaia 48860

Alkate jauna,

Gutun honen bitartez eskaera bat egin nahi dizugu.

Duela pare bat aste ONG-ko informazio unkgarria jaso genuen. Bertan, dirua beharrezkoa zutela adierazten zuen. Honegatik, ideia bat bururatu zitzaigun. Zure baimenarekin, musika jaialdi bat antolatzea eta jasotzen den dirua ONG honi eman.

Hau egin ahal izateko, eszenatokia eta pare bat txozna beharko genituzke. Musikariak herriko gazte batzuk izango ziren, hauek ondo jotzen baitute eta ez zutelako dirurik jasoko. Aproposena gazte egunean egitea izango zen, jasoko ditugun irabaziak handiak izango direlako.

Musika jaialdian irabazten den guztia ez da, nozki, ONG-ra joango. Lehendabizi eszenatokiak eta txoznak ordainduko dira, eta jaialdian joko duten musikariei opari bat emango zaie.

Jaialdian gainera, ONG-ko errepresentantea etorriko da han aurkezteko, honela, inor interesatuta egonez gero sozioa egin ahal izango da.

5 talde desberdin joko dute, guztiak ezagunak herrian, eta goizean eskoletako gazte batzuk pailasoz mozoratu eta txikientzat aktuatuko dute (gazte eguneko programan baitago). Guzti honengatik espero den emaitza oso ona izango dela uste da.

Beste barik gure proposamena kontuan izango duzulakoan eta aurretik eskerrak emanez agurtzen zaitugu



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

1-2'5 puntu: (2-5)

- ✓ Testua ulergaitza egiten duten akatsak ditu.
- ✓ Egitura sinpleak erabiltzen dituen arren, hauetan ere akatsak egiten ditu.
- ✓ Ulergarritasuna oztopatzen duten akatsak ditu tarteka.
- ✓ Ortografian, arruntak diren hitzetan oinarritzko akats larri batzuk egiten ditu, baina ez sistematikoak.

1-ETIK HURBIL DAGOEN TESTU ZATIA:

Bilbon, 2010eko Ekainaren 10an

Jaun hori:

Ni xxxx naiz eta musikaria naiz. Pasaden astean Interneten sartu nintzenean ikusi nuen edonork nire abesti berrienak jaits ditzakeela ordaindu barik. Momentu hontan, oso kezkatuta geratu nintzen pentsatu nuelako nire karrera profesionala amaituko zezakeela, ez zait gustatzen lan egitea dohainik.

Nahiz eta gustatzen zaidan jendeak entzuten nauela gustatuko litzaidake legearen bidez izango zela. Horregatik, zure laguntza eskatzen dizut zeren eta uste dut arazo honetan neurri gogorrek ipiniko behar direla. Hala ere, ez dut nahi jendeak entzuteari usten nauela neurriengatik. Orduan, ez dakidanez zer egin dezaket zure aholku edo emaitza entzutea gustatuko litzaidake.

Nire ustez, ulertzen dut diskoak garestiegiak direla baina beste lagun musikarien iritsia Internetetik musika jaitea debekatu behar dela da baina, nik uste dut zure taldeak (SGAE) ipin dezake lege bat esaten ordaindu behar dela Internetetik kultura jaiteagatik. Zer iruditzen zaizu?

Zure erantzuna gogoz espero dut.

2,5 ERA HURBILTZEN DEN TESTU ZATIA:

Musika eta gizartea

Gaur egun musika garrantzia handia dauka, baina hau ez da berria iraganan musika jendea mugitzen zuen, baina bakarrik batzuk entzun ahal zuten, normalean dirudun jendea.

Musika daukan arrakasta arrazoi askotik da, adibidez, garraio publikoan joaten zarenean, aspertzen zara, horregatik musika entzuten duzu, mugikorarekin, mp-3, lpod... eta horrela entretenitzen zara, edo egun txarra izan baduzu musika alaia ipini eta hobeto sentituko zara, musikak orokorrean gure alaitasuna edo gure zoritzarra adierazten du, eta gainera gure izaeraz asko ezaten du.

Denboran zehar musika motak asko aldatu dira eta mota berriak sortu dira, Adibidez, ehun urte atzera joaten bagara musika hori ez dauka zerikusirik gaur egunkoarekin.

Espanian sortu dira beste musika mota, reggetoia adibide bat da.

Musikan mubimendu asko eragiten dute, moda, literatura eta pentzatuko duzue, literatura? bai, zerikusirik asko daukate; literatura normalean (mota asko daudelako) nola den momentuaren biziduna adierazten du, ea demokrazian, diktaduran eta abar gauden hala ez, Gizakion pentsakerak ere adierazten ditu, eta gauza horiek arremán handi-handia daukate, literatura eta musika biak expresioi formak dira eta horregatik historiako parte inportantea eta garrantzizua da.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

*Beste arremanak daukate, esatebaterako, biak diru asko mugitzen dure urtero, musika disko eta kontzertuekin eta literatura liburuak argitaratzen, baina azken urtean teknologiarekin ez da beharrezkoa diskoak edo liburuak erosi saretik jaitzi ahal dituzu.
Amaitzeko aholku bat: irakurri eta entzun musika egunero*

0-1 puntu: (0-2)

- ✓ Testua ulergaitza egiten duten akats sistematikoak ditu.
- ✓ Egitura sinpleak erabiltzen dituen arren, hauetan ere akats nabarmenak egiten ditu.
- ✓ Nabarmen geratzen dira komunikazio eta hizkuntzari buruzko gabeziak.
- ✓ Nabarmena da eskatutako hitz kopurura ez dela iritsi.
- ✓ Oinarrizko akats gramatikal larri ugari egiten ditu (ergatiboa, komunztadura, konpletiboak...).

*Kaixo jaun andreok gutun hau idatzi dizuet kontzertu benefikoa egiteko zure ONG laguntzeko. Nire ustez BEC hona da egiteko leku andia delako. Kontzertu horretan musika desberdin mota entzungo da. Beraz rock izarra adibidez ACDC, KISS edo beste batzuek, hip-hop izarrak Eminem eta SOcent, ere bai Euskal Herriko abeslaria gure folklore eta gure musika munduan entzuteko. Baina hori ez da garestia beraz zure laguntza behar dut, uzte dut diru asko irabaziko dugu beraz ez kezkatu.
Dirua irabaziko dugun Afrikara eramango ditugu Malaria zaintzeko eta ikastolak egiteko gainera dirua geratuko badugu iturriak egingo dugu bere herrian ura ez faltatzeko.
Espero dut Aste Nagusian izango dela, gazte asko etortzen delako, ere bai ekarriko ahal dugu talde zahar bat gazteak ez direlako*



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

Barakaldon, 2010ko ekainaren 11an
Egileen elkarteko zuzendaria/Gran Via 56, nº 7
Bilbon

Kaixo, zuzendaria!

Gutun hau idatzi dut arazo bat daukadalako.

Ni beti musikaria izan naiz; baina orain erabaki dut nire lana handitzen. Nire abestiak ospetsuak izan nahi dut. Horretarako; zurekin hitz egin behar dut.

Niri txikitan musikako mundua gustatu zait. Hasieran, dutxan abesten hasi nuen; gero nire familiarekin eta gero, nire abestiak idazten hasi nuen.

Nik ez daukat ospetsurik; baina gustatuko nuke nire abestiak ospetsua daukate.

Zergatik? Deno, guztiek hona, nire musika entzungo ahal izango lukete.

Horregatik, nire abestiek jaitsi behar dute. Munduko jendea nire musika entzun behar dute, ona delako.

Nik badakit SGAE hori egin ahal dute. Nire musika entzun behar zenuke eta gero nirekin hitz egiten duzu. Nik dakidalako, zuri gustatuko zaizu. Ez naiz munduko musikalarik onena baina nire musika ez da txarra.

Nire abesti guztiak saretik jaitsi ahal badira; jende gehiago entzun ahal izango du.

Gaur egun, guztiak Internet daukate, horregatik guztiek ni entzun ahal naute.

Nik badakit musikako mundua oso zaila da baina nire musika pena merezi du.

Gero arte, Egileen Elkarteko zuzendaria.

OHARRAK:

- Gainditu ahal izateko, testua eskatutakoari lotzen zaiola bermatuko da.
- Azterketa bat suspenditzeko dagoen argumentu bakarra hitz kopurua denean, oso nabarmena izan behar da hutsegite hau.
- GOGORATU honako hau idazlanaren emaitza ipintzean:

IDAZLANAREN BALIOA	1-ETIK 10-ERAKO ESKALAN
5	10
4,5	9
4	8
3,5	7
3	6
2,5	5
2	4
1,5	3
1	2
0,5	1



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

ZUZENKETARAKO TXANTILOIA

A AUKERA

A.1.- IRAKURMENA

ULERMENA (2 puntu)

Erantzun egokiak:

1. d)
2. c)
3. b)
4. a)
5. c)

GAIA ETA IDEIAK (2 puntu)

GAIA (Aukeratu egokiena. 0.5 puntu) (A eta B aukeretan)

Erantzun egokia: d)

A.2.- HIZKUNTZA ETA LITERATURAREN INGURUAN (1 puntu)

AURKITU TESTUAN DEFINIZIO HAUEI DAGOZKIEN HITZAK

- a) dieta
- b) gizentasuna
- c) barazkia
- d) gaixotasuna
- e) bidelaguna

Oharra: onartzeoak izango dira bai lema soila bai hitza deklinatuta ematen duten erantzunak.